-Xehetasunezko azterlana onartzeko ofizioz egindako espedientea, udal teknikari Javier Lizasok idatzitakoa, Santikurutze Kanpezun dagoen Santa Elena kalearen lerrokadurak berriz ere doitzeko. Doitze lan horiek Santikurutze Kanpezuko 3733, 3734 eta 3735 lurzatiei eragiten diete.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoru eta Hirigintzarenak, 98.1 artikuluan xedaturikoarekin bat etorriz, jendaurrean jartzen da hogei egunez, iragarki hau ALHAOn eta Diario de Noticias de Álavan argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Jendaurrean dagoen bitartean, espedientea aztertu nahi duen ororen esku egongo da, egoki deritzen alegazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzan.

Santikurutze Kanpezu, 2013ko maiatzaren 27a.– Alkatea, ESTEBAN GARCÍA CAMPIJO.

-Expediente de oficio de aprobación de Estudio de Detalle y redactado por el Técnico Municipal, D. Javier Lizaso, para el reajuste de alienaciones de la calle Santa Elena, en la localidad de Santa Cruz de Campezo, que afecta a las Parcelas 3733, 3734 y 3735 de Santa Cruz de Campezo.

De conformidad con el artículo 98.1 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, se somete a información pública por el plazo de veinte días, a contar desde el día siguiente al de publicación del presente anuncio en el BOTHA y en el Diario de Noticias de Álava.

Durante el período de información pública, quedará el expediente a disposición de cualquiera que quiera examinarlo, a los efectos de que se presenten las alegaciones y sugerencias que se consideren pertinentes.

En Santa Cruz de Campezo, a 27 de mayo de 2013.– El alcalde, ESTEBAN GARCÍA CAMPIJO.

## BURGELU

**2804**

**Auzolanak arautzen dituen ordenantza behin betiko onartzea.**

Burgeluko auzolanak arautzen dituen udal ordenantza onartzeko ordenantzari inolako erreklamaziorik edo alegaziorik aurkeztu ez zaionez, behin betiko onartzen da eta testu osoa argitaratzen da guztiek jakin dezaten.

**"AUZOLANEN ORDENANTZA**

1. artikulua.- XEDEA

Ordenantza honen xedea da udalerri honetako auzolanak arautzea eta zehaztea, norberak udalerrian eman beharreko zerbitzu gisa ulertuta, Burgeluko udalerriak esleituta dituen eskumenen esparruan.

2. artikulua.- DEFINIZIOAK

Ordenantza honen ondorioetarako, ondoko definizio hauek ezartzen dira:

2.1.- Auzoko familia: Pertsona edo pertsona taldea, udalerrian teilatupe berean bizi dena.

2.2.- Egoitzadunak: pertsona edo pertsona taldea, euren artean ahaide izanik edo izan gabe, udal erroldan izena emanda egon ala ez, edozein tituluren bitartez kontzejuan etxebizitzaren bat daukana.

2.3.- Auzolana: Udalerrian auzokoek edo egoitzadunek egin beharreko lana; lan horren xedeak izan behar du erabilera edo zerbitzu publikorako diren udalaren ondasunen edo erabilera esleiturik dituen ondasunen eraikuntza, konpontze edo mantentze lanak egitea.

Auzolanak honela sailkatzen dira:

2.3.1. Ohiko auzolanak: erabilera eta zerbitzu publikoetarako udalaren ondasun eta zerbitzuak zaindu eta instalatzearren, urtean zehar egiten direnak.

Auzolanetan egin daitezkeen lanak hauek dira:

a) Udalaren jabetzakoak diren eraikinak eta gune publikoak konpondu, garbitu eta horien mantentze lanak egitea.

b) Herri barruko bide publikoak eta horien osagai guztiak zaindu, konpondu, hobetu eta garbitzea.

c) Mendi eta ibaietan garbiketa, sastraka-kentze eta birpopulatze lanak egitea.

d) Udalaren eskumeneko lurraldean pertsonentzako arriskuak saihesteko lanak egitea.

e) Bideak, landa-bideak, baso-bideak eta bidezidorrak egin, konpondu eta zaintzea.

f) Hilerria zaindu, konpondu, hobetu eta garbitzea.

g) Udalerriaren onurarako beharrezko izan daitekeen beste edozein ekintza.

2.3.2.- Ez ohiko auzolanak: Hondamendi, uholde, sute edo aurreikusi ezin daitekeen beste edozein fenomenoren ondorioz sortzen

## ELBURGO

**2804**

**Aprobación definitiva de la modificación de la Ordenanza reguladora de veredas.**

No habiéndose presentado reclamaciones ni alegaciones al expediente de aprobación de la Ordenanza municipal reguladora de Veredas en Elburgo, se considera definitivamente aprobada, haciéndose público el texto íntegro para general conocimiento:

**"ORDENANZA DE VEREDAS**

Artículo 1.- OBJETO

Esta Ordenanza tiene por objeto la regulación y definición de las veredas municipales, entendidas como prestaciones personales que se han de producir en este término municipal, en el marco de las competencias que tiene atribuidas este municipio de Elburgo.

Artículo 2.- DEFINICIONES

A los efectos de la presente ordenanza se establecen las siguientes definiciones:

2.1.- Familia Vecinal: Persona o conjunto de personas que conviven bajo un mismo techo dentro del término municipal.

2.2.- Moradores: Persona o conjunto de personas que unidas, o no por lazos familiares, poseen por cualquier título, alguna vivienda dentro del mismo, se encuentren o no inscritas en el padrón municipal.

2.3.- Vereda: Obra o actividad a realizar dentro del término del municipio y que tengan por objeto la construcción, reparación o mantenimiento de un bien perteneciente al Ayuntamiento, o cuyo uso le esté atribuido, destinado al uso o servicio público, realizado por los vecinos y/o moradores del mismo.

Se dividen en:

2.3.1. Veredas Ordinarias: Son aquellas que se producen durante el año, y cuyo fin es posibilitar la instalación y el buen estado de los bienes y servicios del Ayuntamiento, destinados al uso o servicio público.

Las actuaciones que pueden ser realizadas en las veredas son:

a) Reparación, limpieza y mantenimiento de los edificios y espacios públicos propiedad del municipio.

b) Conservación, reparación, mejora y limpieza de vías públicas urbanas con todos los elementos que las componen.

c) Trabajos de limpieza, desbroce y repoblación de montes y ríos.

d) Actividades tendentes a evitar riesgos y/o peligros para las personas dentro del territorio jurisdiccional del municipio.

e) Apertura, reparación y conservación de caminos, vías rurales, forestales y sendas.

f) Conservación, reparación, mejora y limpieza de cementerio.

g) Cualquier otra actuación necesaria para el bien común del municipio.

2.3.2.- Veredas Extraordinarias: Aquellas veredas que se produzcan como consecuencia de calamidades, inundaciones, incendios o

diren auzolanak, nahitaezkoak, guztien onerako baitira eta berehaal jardutea eskatzen baitute.

3. artikulua.- BEHARTUTA DAUDEN PERTSONAK EZOHIKO AUZOLANETAN.

3.1.- Auzolanak denoi dagozkigunez gero, nahitaezkoa da, gutxienez, kontzejuko familia bakoitzeko kide batek 2.3.2 artikuluan zehaztutako ezohiko auzolanetan parte hartzea, baita egoitzadunak edo udalerrian etxe berean bizi diren egoitzadunetariko batek ere. Hala ere salbuespenak ere badaude. Hona hemen horiek:

a) Familia, egoitzadun edo egoitzadun talde bateko kide guztiek 18 urtetik behera edo 65etik gora badituzte.

Aurrekoa gorabehera, 65 urtetik gorakoak ere ager daitezke auzolanetara beren borondatez, eta eurak ere istripu eta kalteetatik babestuta egongo dira dagokion aseguruarekin.

b) Aurreko lerroaldekoak izan ezik, auzolana egitekoa den egunean kide guztiak gaixorik edo ezindurik dituzten familiak.

3.2.- Egitekoa den lanaren tamainaren eta hedaduraren arabera, betebeharra duen lagun kopuru jakin bati egin ahal izango zaio deia auzolanerako. Euren trebetasuna eta zenbateraino prest dauden kontuan izanda deituko zaie, besteei ahalik eta eragozpen txikiena eraginez. Dena den, egiten dituzten auzolanak kontuan hartuko dira hurrengoan deialdi orokorrak egiten direnerako, eta horietara ez joateko aukera izateko.

4. artikulua.- DEIALDIA

4.1.- Udaleko alkate-lehendakariak egingo du auzolanerako deia, eta erabakiko du derrigorrezkoa ala borondatezkoa den, eta zer lur eremuri eragiten dion; deialdian bertan zehaztuko du zein lan egingo den, non eta zer ordutan hasiko den eta noiz buka daitekeen, bai eta zein lanabes eraman ere, 1. eranskinean ageri den moduan.

4.2.- Auzolanerako deia ohiko eran eta iragarki oholean oharra jarriz egingo da, auzolanetara joateko betebeharra dutenak agertu ahal izateko moduko aurretiaz; salbuespena izango dira ezohiko auzolanak, berezko izaeragatik ez baitute baldintza hori bete beharko.

4.3.- Edonola ere, auzolanak arrazoizko epean egin ahal izateko aukera aztertuko du udalak, kontuan hartuta premiazko kasuak, eguraldia etab., betebeharra dutenek lan horiek ahalik eta erosoen egin ahal izan ditzaten.

5. artikulua.- AUZOLANAK NOLA EGIN

5.1.- Oro har, ezarritako orduan eta adierazitako lekura joanez hartuko da parte auzolanetan, bakoitzak egin beharreko lan motarako aldez aurretik zehaztu diren lanabes eta makinak norberarekin ekarriz.

5.2.- Horretarako, auzolanen liburu ofizial bat egongo da, eta bertan aintzat hartu beharreko gorabehera guztiak jasoko dira, 2. eranskineko eredu orrian agertzen den eran.

5.3.- Udalak pertsona bat izenda dezake (zinegotzia, udal langilea edo egoitzaduna) auzolanak antolatu eta egiteko, eta berak banatuko ditu pertsonak eta bitarteko materialak haiek modurik egokienean burutu daitezen.

5.4.- Auzolanerako unea aukeratzerakoan, ahalegina egingo da udalarrian lan gehien izaten den sasoian izan ez dadin; asteko zein egunetan egin ere ondo aztertu beharko da, hala auzotarrak nola egoitzadunak, denak agertu ahal izan daitezen.

5.5.- Udalak auzolanetan parte hartzen dutenak babestuko ditu. Horretarako, auzolanetatik sor daitezkeen istripu arriskuetatik eta bestelako kalteetatik babesteko asegurua egingo da.

5.6.- Auzolanak ez dakar inolaz ere udalaren eta auzolanean parte hartzera behartuta daudenen arteko lan harremanik.

cualquier otro fenómeno no previsible y que, por afectar al bien común, y ser necesaria una actuación urgente tienen el carácter de obligatorias.

Artículo 3.- PERSONAS OBLIGADAS EN EL CASO DE VEREDAS EXTRAORDINARIAS.

3.1.- Siendo las veredas una cuestión que afecta al bien común, se establece el carácter obligatorio de asistencia a las veredas extraordinarias definidas en el artículo 2.3.2 de por lo menos un integrante de cada familia vecinal, así como del morador, o en su caso, al menos un integrante de cada grupo de moradores que posean conjuntamente una misma vivienda en este municipio, con las excepciones siguientes:

a) Aquella familia, morador o grupos de moradores en la que todos sus miembros fueran menores de 18 años o mayores de 65 años.

No obstante lo anterior, los mayores de 65 años podrán acudir voluntariamente a las veredas que estimen oportunas, estando cubiertos en tales supuestos de los riesgos de accidentes y contingencias que de los mismos se deriven con el correspondiente seguro.

b) Las familias en las que los miembros no comprendidos en el apartado anterior estuvieran enfermos o imposibilitados en la fecha de celebración de la vereda.

3.2.- En función de la magnitud y extensión de las obras a realizar, el llamamiento podrá recaer en un número concreto, e incluso individualizado, de obligados. Estos serán designados con un criterio de pericia y disponibilidad, de forma que cause el menor quebranto posible al resto y las veredas a las que asistan se podrán compensar con aquellas otras también extraordinarias de llamamiento general de las que podrán ser excusados.

Artículo 4.- CONVOCATORIA

4.1.- La convocatoria para la realización de una vereda, la determinación de su carácter obligatorio o voluntario así como del ámbito territorial afectado, será realizada por la Alcaldía-Presidencia del Ayuntamiento, que en el mismo acto determinará la tarea a realizar, hora y lugar de comienzo, posible hora de finalización así como útiles que habrá de aportar, según consta en el Anexo 1.

4.2.- Las convocatorias a las veredas ordinarias se realizarán por el medio habitual y en el tablón de anuncios de la Entidad con el tiempo suficiente para que los obligados puedan acudir a las mismas, excepto las extraordinarias, que por su naturaleza no precisarán de este requisito.

4.3.- En cualquier caso, el Ayuntamiento estudiará la posibilidad de la realización de las veredas dentro de un plazo razonable, atendiendo a los casos de urgencia, tiempo atmosférico, etc., para que las obras sean realizadas por los obligados de la forma más cómoda posible.

Artículo 5.- MODO DE REALIZAR LAS VEREDAS.

5.1.- Como norma general las veredas se efectuarán acudiendo al lugar y a la hora que se hayan señalado para dar comienzo a las mismas, provistos cada uno de los asistentes de las herramientas o maquinaria que se hayan determinado para el tipo de prestación a realizar.

5.2.- A tal fin se llevará un libro oficializado de veredas donde quedarán reflejadas las incidencias oportunas, según el modelo del documento Anexo 2.

5.3.- El Ayuntamiento designará a una persona (que podrá ser concejal, trabajador municipal o morador) para la organización y ejecución de los trabajos de la vereda y procederá a la distribución de las personas y de los medios materiales de la forma más conveniente para su desarrollo.

5.4.- Al fijarse el momento de la prestación se procurará que ésta no coincida con la época de mayor actividad laboral en el término municipal, y también se podrá tener en cuenta el día de la semana en que se establezca, a efectos de posibilitar la asistencia tanto de los vecinos como de los moradores.

5.5.- El Ayuntamiento formalizará la protección de quienes participen en las veredas concertando un seguro que cubra los riesgos de accidentes y las contingencias que de él se deriven.

5.6.- La realización de veredas queda expresamente excluida de cualquier relación laboral entre el Ayuntamiento y los obligados a las mismas.

6. artikulua. – LIBRE GERATZEAK

6.1.- Auzolanean parte hartzeko betebeharra duten auzotar eta egoitzadunek horretatik libre geratzea badaukate, honako eraren batean: a) Bere ordez lana egin dezakeen beste norbait bidaliz; b) ordu lan bakoitzeko 10 euro ordainduz; horretarako, aldez aurretik, likidazioa behar bezala jakinaraziko zaio interesdunari, 3. eranskinean deskribatutako ereduaren arabera; eta c) egin gabeko auzolan horren ordainetan beste auzolan batean parte hartuz, baldin eta huts egite hori arrazoitua izan bada.

6.2.- Auzolanera osorik edo partez huts egiten bada hura antolatzeko izendatutako pertsonari bidezko arrazoia adierazi gabe, artikulu honen 1. idatz zatiaren b) letra aplikatuko da eta, ondorioz, hor zehazten den zenbatekoa ordaindu beharko da.

7artikulua.- KALTE-ORDAINA AUZOLANEAN PARTE HARTZEAGATIK

Auzolanean parte hartzeko betebeharra dutenek horrek eragiten dizkieten kalteen ordaina jaso ahal izango dute, udalak erabakitzen duenaren arabera.

**1. ERANSKINA**

AUZOLANAREN DEIALDIA
(ohikoa edo ez ohikoa, dagokionaren arabera)

IZAERA: (borondatezko edo nahitaezkoa)
XEDEA:..........................................................................................
EGUNA:..........................................................................................
HASIERA ORDUA:..........................................................................
BUKAERA ORDUA:........................................................................
TOKIA:...........................................................................................
PARTE HARTZAILEEK ERAMAN BEHARREKO TRESNAK:............
BANAN-BANAN DEITUTAKO PERTSONAK:....................................

Artículo 6. – REDENCIONES

6.1.- Todos aquellos obligados a acudir a la vereda podrán redimirse de la misma de alguna de las siguientes formas: a) acudiendo en su lugar otra persona capaz de realizarla, b) abonando la cantidad de 10 euros por hora de prestación personal, que se hará efectiva previa liquidación notificada en debida forma, según modelo descrito en el Anexo 3 y c) realizando otra vereda compensatoria de la no efectuada siempre y cuando la falta obedezca a causa justificada.

6.2.- La no asistencia total o parcial del obligado a la vereda convocada, sin causa justificada comunicada a la persona designada para la organización, presupondrá la aplicación de la letra b) del apartado 1 de este artículo y al abono, en consecuencia, de la cantidad establecida en el mismo.

Artículo 7 RESARCIMIENTO O INDEMNIZACIÓN POR EL EJERCICIO DE LA PRESTACIÓN.

Los obligados a la vereda podrán percibir una compensación económica en concepto de resarcimiento o indemnización por los perjuicios que ello les cause, según lo acuerde el Ayuntamiento.

**ANEXO 1**

CONVOCATORIA DE VEREDA
(Ordinaria o extraordinaria, según proceda)

CARÁCTER: (Voluntario u obligatorio)
OBJETO:.........................................................................................
DÍA:................................................................................................
HORA COMIENZO:..........................................................................
HORA FINALIZACIÓN:....................................................................
LUGAR:...........................................................................................
HERRAMIENTAS A APORTAR POR LOS PARTICIPANTES:............
PERSONAS INDIVIDUALMENTE CONVOCADAS:...........................

## 2. ERANSKINA

AUZOLANA: ............................................................. [1]

EGUNA:…… HILA: .................................. URTEA: .........

| BERTARATUAK | ZENBAT LANORDU GERATZEN DIREN | | EKARRITAKO TRESNA | ORDAINDUTAK O DIETA | | LIBRE GERATZEA | | ORDUAK ERREKUPERATZEA | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Errekuper atzekoak | Libre geratzekoak | | Euroak | Data | Euroak | Data | Ordua | Eguna | Ordua | Eguna |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |

AUZOLANA: ..........................................................................[1]

EGUNA:……HILA: .................................. URTEA .......................

[1] Objeto de la vereda.

| BERTARATU EZ DIRENAK | ZENBAT LANORDU GERATZEN DIREN | | LIBRE GERATZEA | | ORDUAK ERREKUPERATZEA | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Errekuperatzekoak | Libre geratzekoak | Orduak | Data | Orduak | Eguna | Orduak | Eguna |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |

## ANEXO 2

VEREDA: ............................................................ [1]

DIA ............. MES ............................. AÑO ...............................

| ASISTENTES | HORAS PENDIENTES | | UTIL APORTADO | DIETA PAGADA | | REDENCION EFECTIVA | | RECUPERACIONES HORAS | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A recuperar | A redimir | | Euros. | Fecha | Euros. | Fecha | Hora | Día | Hora | Día |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |

VEREDA: ............................................................................[1]

DIA ............MES .......................... AÑO .......................

---

[1] Objeto de la vereda.

| NO ASISTENTES | HORAS PENDIENTES | | REDENCION | | RECUPERACION | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A recuperar | A redimir | Horas | Fecha | Horas | Día | Horas | Día |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |

**3. ERANSKINA**

Jakinarazpen eredua, auzolanetara joan beharretik libre geratu izanaren likidazioarena

Izena...............................................................................................
Helbidea...........................................................................................
Jaun/andre agurgarria:....................................................................

Udal honetako auzolanen liburuan jasotzen diren datuen arabera,.................(e)ko..........aren........(e)(a)n.......................xedez egindako auzolanera agertu ez den pertsonetako bat zara; ondorioz, kasuan kasuko ordenantza arautzailearen 6. artikuluan xedatutakoa betez,..........euro ordaindu beharko duzu, auzolanetik libre geratzeagatik.

Zenbateko hori udal diruzaintzan ordainduko duzu hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Ez baduzu epe horretan ordaintzen (borondatezko epean, hain zuzen), betearazte aldia hasiko da, eta, orduan, dagozkion errekarguekin ordaindu beharko duzu, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako Zergei buruzkoak, 28. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Honen berri ematen dizut, eta horrek administrazio bidea agortu egiten duela jakinarazten, eta berorren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango duzula, zuzenean, Arabako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, eta horretarako, bi hilabete izango dituzula, jakinarazte egunaren biharamunetik hasita, edo, bestela, aukeran, berraztertze errekurtsoa aurkez dezakezula, alkatelehendakari honi zuzendua, eta horretarako, hilabete izango duzula, jakinarazte egunaren hurrengotik hasita; horren esanbidezko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango duzu administrazioarekiko auzi errekurtsoa, Arabako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen duzun egunaren hurrengotik hasita, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik hasita.

Ohar garrantzitsua: jakinarazpen hau egiteko, jaso egin dela egiaztatzen duen moduren bat erabiliko da (postaz bidalita, gutun ziurtatu bidez eta jaso agiriarekin; bestela, gutuna eskuan emanda eta interesdunari haren fotokopia sinarazita, jaso egunarekin; baldin eta etxean ez badago, bertan dagoen beste edozeinek jaso dezake, jasotzailea nor izan den jasota utziz).”

Burgelu, 2013ko maiatzaren 21a.– Alkatea, NATIVIDAD LOPEZ DE MUNAIN ALZOLA.

**ANEXO 3**

Modelo de notificación de liquidación de redención de vereda

Nombre...............................................................................................
Dirección...........................................................................................
Estimado Sr/a:....................................................................................

Según los datos obrantes en el Libro de Veredas del Ayuntamiento, figura Vd. como no asistente a la vereda realizada el día…….......… con la finalidad de la realización de……………………..., por lo que de conformidad con lo previsto en el artículo 6 de la Ordenanza reguladora correspondiente, deberá abonar la cantidad de euros en concepto de redención.

Dicha cantidad deberá ser ingresada en la Tesorería municipal en el plazo máximo de un mes contado a partir del día siguiente al de la presente notificación.

De no realizar el ingreso en el plazo indicado (período voluntario de pago), se iniciará el período ejecutivo, con aplicación de los recargos que en su caso correspondan, según lo establecido en el artículo 28 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava.

Lo que le notifico significándole que la presente resolución pone fin a la vía administrativa y que contra ella puede interponer directamente recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Vitoria-Gasteiz en el plazo de 2 meses a contar del día siguiente al de su notificación o bien, con carácter potestativo, recurso de reposición ante esta Alcaldía-Presidencia, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su notificación y, contra la resolución expresa o presunta de éste, recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Vitoria-Gasteiz en el plazo de 2 meses, a contar desde el día siguiente al de notificación de la resolución desestimatoria del recurso de reposición o en el plazo de 6 meses a contar desde el día siguiente a aquél en que se produzca la desestimación presunta de dicho recurso.

Nota importante: la presente notificación deberá comunicarse por alguno de los medios que permita tener constancias de su recepción (por correo mediante carta certificada con acuse de recibo, mediante entrega personal con fotocopia de la carta que se remite en la que deberá constar la firma y fecha de recepción de la carta de la persona interesada, y de no hallarse presente ésta, podrá hacerse cargo cualquier persona que se encuentre en el domicilio y haga constar su identidad).”

En Elburgo a 21 de mayo de 2013.– La alcaldesa, NATIVIDAD LOPEZ DE MUNAIN ALZOLA.

## IRUÑA OKA

**2838**

**Hirigintza hitzarmena ondorerik gabe uztea**

Udalbatzak, 2013ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, ondorerik gabe uztea erabaki zuen orivetarrekin izenpetu beharreko hirigintza hitzarmenari buruz 2013ko urtarrilaren 16an hartutako erabakia.

Iruña Oka, 2013ko maiatzaren 27a.– Alkate-lehendakaria, JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA.

## IRUÑA DE OCA

**2838**

**Convenio urbanístico sin efecto**

El Pleno de la Corporación Municipal, en sesión celebrada con fecha 15 de mayo de 2013 acordó dejar sin efecto el acuerdo adoptado con fecha 16 de enero de 2013 relativo al Convenio Urbanístico a suscribir con la familia Orive.

En Iruña de Oca, a 27 de mayo de 2013.– El alcalde-presidente, JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA.

## IRURAITZ-GAUNA

**2825**

**2012ko kontu orokorra jendaurrean jartzea**

Korporazio honetako Kontuen Batzorde Bereziak, 2013ko maiatzaren 23an balio osoz egindako bilkuran, aldeko irizpena eman dio IRURAITZ-GAUNAKO Udalaren 2012ko kontu orokorrari; jendaurrean jartzen da hamabost egunez, iragarki hau ALHAOn argi-

## IRURAIZ-GAUNA

**2825**

**Exposición pública cuenta general 2012**

La Comisión Especial de Cuentas de esta Corporación, en sesión válidamente celebrada el día 23 de mayo de 2013, ha dictaminado favorablemente la Cuenta General del Ayuntamiento de IRURAIZ-GAUNA, correspondiente al ejercicio 2012, quedando expuesta al público por